

Zumaiako Plan Estrategikoa

Diagnostiko-fasea. Herritarrekin bateratzeko saioa

Eguna: 2015/12/16

Ordua: 18:00-20:30



1. Sarrera

Ongi etorria eman, saioaren helburuak eta funtzionamendua azaldu ditugu, eta lanean jarri gara. Diagnostikoa osatzeko 7 saio egin ditugu, eta horietan 164 herritarrek hartu dute parte (% 45 emakumeak; % 55 gizonak). Adin-tarteka, hau izan da partaidetza:

Adin-tartea	Portzentaia
<25	% 2
26-45	% 44
46-65	% 40
>66	% 14

Orain arteko saioretan landutakoarekin diagnostikoa osatu dugu, eta 22 ondoriotan laburbildu dugu diagnostiko-txostena (ikus eranskina).



2. Diagnostikoaren lanketa

Aurkezpena egin ondoren, talde txikitan banatuta ondorio horien gainean lanketa egin dugu. Ondoko galderari erantzuteko eskatu dugu:

- Aurkeztutako ondorioek laburbiltzen dute Zumaiako errealitatea eta Zumaiako behar nagusiak?
- Bereziki, non jarriko zenuke arreta? Zure ustez, biharko Zumaiak zein behar naguri erantzun beharko lioke?
- Diagnostikoa titular batean nola laburbilduko zenuke?

Hauk izan dira taldeetan ateratako ondorioak:

1. taldea

“Aukera asko dituen herria, hobetzeko bidean, eta elkarlanean!”

Diagnostikoari ekarpenak:

- Diagnostikoak primeran jasotzen du herriko errealitatea eta beharrak.

Arreta jartzeko elementuak:

- Euskararen erabilera sustatu behar da.
- Administrazioaren sinesgarritasunean lan egin behar da.
- Industria eta turismotik kanpo gizartearen garapenari arreta jarri behar zaio: emakume eta gizonen berdintasuna, gazte eta helduak, zainketa lanak...
- Arau subsidiarioek eguneraketa behar dute
- Egungo turismo ereduak kezka sortzen du. Jasangarria da?
- Ezinduen beharrak kontuan hartu.
- Algorri Interpretazio Zentroa berritu behar da.
- Ikastetxeetako instalazioek hobekuntzak behar dituzte.
- Enplegua sortzeko politikak sustatu.
- Adineko jendearentzat ekintza gehiago bideratu behar dira.



2. taldea

Diagnostikoari ekarpenak:

- Diagnostikoa oso baikorra da.
- Eskolen arteko harremanak badaude.

Arreta jartzeko elementuak:

- Gizartearen kontzientzia zioa landu behar da.
- Kultura eta historia.
- Aldaketa klimatikoa zaindu.
- Garraio publikoa bultzatu, eta bizikleta-sarea sustatu.
- Garapen ekonomikoari garrantzia eman: azoka eta enplegu jasangarria.
- Herriaren iraunkortasuna eta zaintza bultzatu.
- Gazteentzako zerbitzu eta ekipamendu beharra dago.
- Berdintasunean lan egin.

3. taldea

“Berdintasuna eta oreka”

Diagnostikoari ekarpenak:

- Diagnostikoak nahiko ondo jasotzen du errealitatea.
- Auzo guztiei zerbitzuak eskaini behar zaizkie, berdintasuna bilatu behar da auzoen artean.
- Emakume eta gizonen arteko desberdintasunak gutxitzeko lan egin behar da, soldatetan eta lanbidetan sakonduz.

Arreta jartzeko elementuak:

- Turismoaren gaiak lanketa berezia eskatzen du, bereziki lehen sektorearekin eta ingurumenaren ikuspegitik.
- Sektore ekonomikoen arteko oreka bilatu behar da.
- Hazi nahi dugu? Oraingo tamaina gustatzen zaigu.
- Kotxeen erabilera gutxitu beharko litzateke, garraio alternatiboak bultzatuz.
- Gazteen eta nerabeen beharrei erantzuna eman beharko litzaike.

4. taldea

“Dena ez da arrosa kolorekoa”

Diagnostikoari ekarpenak:

- Dena ez da arrosa kolorekoa.

Arreta jartzeko elementuak:

- Turismoaren indarra aprobetxatu behar da.
- Pertsona guztion mugikortasuna zaindu.
- Elkarleen antolamendua, koordinazioa, jarduerak... hobetu behar dira, bereziki adinekoei bideratutakoak.
- Eraikin publikoak gaizki aprobetxatuta daude eta hobekuntzak behar dituzte.
- Langabezia murrizteko lan egin behar da.
- Trafiko eta aparkalekuei konponbidea bilatu.
- Bizikletaren erabilera bultzatzeko ideiak garatu.



5. taldea

Diagnostikoari ekarpenak:

- Orokorrean, aipatutako puntuekin ados gaude.
- 3. puntuan, irisgarritasunari dagokionean, Ardantzabidetik Larretxorako irisgarritasuna ere hobetu beharrekoa da.
- 4. puntuan, mugikortasunean, herrigunerako sarrera-irteera berriz planteatu beharko litzateke (Zubitxikia).
- 7. puntuan, sektoreen pisuari dagokionean, herritarrak plan estrategikoan jasotzen denarekin bat egiteko lanketa egin behar da.
- 8. puntuan, turismoaren arloan, formakuntza eta prestakuntza landu behar dira, herritarrei begira.
- 19. puntuan, orain arte, “bertakoak” eta “kanpotik etorritakoak” eta “euskaldunak” eta “erdaldunak” dikotomiak oso markatuak egon izan dira Zumaian. Hori gainditzeko elkarbizitza eta euskara lotu behar da.

Arreta jartzeko elementuak:

- Turismoaren inpaktoari buruzko hausnarketa egin behar da, garapen ekonomikoari begira (formakuntza).
- Heziketa landu behar da, arlo guztietan.
- Mugikortasuna, bidegorriak, garraio publikoa (auzoei ere begiraturaz, Oikiara...).
- Udako unibertsitateari lotutako ekintzak, ikastaroak... Zumaiara ekarri.

6. taldea

“Oreka eta sinergia”

Diagnostikoari
ekarpenak:

- Orokorrean, ados.

Arreta jartzeko
elementuak:

- Herri tamaina zehaztu beharra dago. 10.000 biztanle inguruko herria izatea tamaina egokia da.
- Mugikortasun plana gauzatu behar da: aparkalekuak zehaztu, irisgarritasuna hobetu, espaloiak...
- Sektore ezberdinen arteko oreka bilatu behar da. Turismo jasangarria bultzatu. Nortasuna galduko ote?
- Gizarte Zerbitzuetan baliabide gehiago behar dira, eta daudenak egokitu.
- Herriko instalazioei (kirola, kultura, zerbitzuak, hezkuntza...) buruzko azterketa sakona behar da (erabilpena, egoera, beharrak...). Efizientzia bilatu behar da.
- Herrian egiten diren kultura eta kirol arloko ekintzak koordinatu egin behar dira
- Ikastetxeen arteko harremanean beti dago zer hobetu, eta sakondu egin behar da, baina hausturirik ez dago.



7. taldea

Diagnostikoari ekarpenak:

- Geoparkea ez da bakarrik turismoa, kultura da, zientzia, hezkuntza, ingurumena... Unescok zehaztutakoaren haritik

Arreta jartzeko elementuak:

- Geoparkea aukera turistikoa da, ekonomia sustatzeko baliabideak daitezke, baina horretarako azpiegitura egokiak behar dira (autokarabanak...) eta herritarren artean ere izpiritu turistikoa landu behar da. Algorri Interpretazio Zentroa egokitu behar da.
- Kultura elkarteak koordinatzeko beharra dago
- Argi falta dago, toki ilun asko, segurtasun-falta sumatzen da. Udaltzaingoaren gaueko ordutegia indartu beharko litzateke

- Aparkalekuak arautu (bertakoak, kanpokoak, OTA...)
- Gazteentzako lokalen premiari aurre egin
- Memoria historikoa, bakea, elkarbizitza landu behar da. Iraganetik ikasi behar genuke etorkizuna lantzeko.

8. taldea

“Daukaguna txukundu eta hobetu”

Diagnostikoari ekarpenak:

- Orokorrean, diagnostikoak errealitateari erantzuten dio

Arreta jartzeko elementuak

- Arau Subsidiario propio batzuen beharra dago, gure eredu propioa landu beharko genuke, herria antolatzeko eredu propioa.
- Dauden ekipamenduak mantendu, eraberritu, egokitu:
 - Zaharren egoitza
 - Musika eskola
 - Kiroldegia
 - Foronda
 - Ikastetxeetako leku falta
 - Ludoteka, Gaztetzola
- Leku estali baten beharra kultura, kriola, aisirako...
- Elkarbizitza sustatu behar da, elkarten arteko elkarlana bultzatu
- Zalantza eragiten du 4. Sektorea nora arte lagundu, bultzatu behar den.



9. taldea

“Bizitza osoa eta duina bizi ahal izateko Zumaia sortu: adinekoak, gazteak, desgaituak, emakumeak, gizonak, guztiak!”

Diagnostikoari ekarpenak:

- Diagnostikoak errealitatea ongi islatzen du. Auzoetan dauden beharrak azpimarratzekoa da, eta hauek birgaitzeko premia azpiratu nahi dugu.
- Garapen ekonomikoaren atala XX. mendeko ekonomia-ereduan idatzia dago. Bestelako eredu ekonomikoak bilatu beharko lirateke (ekonomia solidarioa...), erronka handiagoak jarritz.
- 19. puntuan, kanpotik etorritako pertsonetikiko lanketa integrazioan oinarrituta baina, guztiak zumaiar sentitzeko pentsatu beharko litzateke, edozein dela ere hizkuntza, jatorria, arraza...

Arreta jartzeko elementuak:

- Gazteak: oso gutxi parte hartu dute plan estrategikoan. Bestalde, eurentzako partaidetza guneak sortu beharko lirateke, festak, aisialdia, lana... lantzeko.
- Desgaitasunak dituzten pertsonentzako enplegua bultzatu.
- 3 eta 4. puntuetan arreta jarri: dagoeneko eraikita dauden auzoak birgaitu, irisgarritasuna hobetu, eta mugikortasuna.
- Adineko pertsonak: eskaintza egokitu, bakarrik dauden pertsonen arreta jarri, laguntza zerbitzuak eman...

3. Hurrengo urratsak



→ **Kokapena: prozesuaren urratsak**



OTSAILA - MARTXOA / febrero-marzo

ARLOKAKO BILERAK/REUNIONES SECTORIALES
1. erronda/1ª ronda

Otsailaren 3an, Lurralde antolaketa eta Ingurumena
3 de febrero, Ordenación Territorial y medioambiente

Otsailaren 15ean, Garapen Ekonomikoa
15 de febrero, Desarrollo económico

Otsailaren 22an, Zerbitzu eta Ekipamenduak
22 de febrero, Servicios y equipamientos

Otsailaren 29an, Herrigintza eta elkarbizitza
29 de febrero, Pertenencia y convivencia

Martxoaren 7an, gaztelaniazko saioa
7 de marzo, sesión en castellano

→ **Kokapena: prozesuaren urratsak**



APIRILA / abril

ARLOKAKO BILERAK/REUNIONES SECTORIALES
2. erronda/2ª ronda

Apirilaren 13an, Lurralde antolaketa eta Ingurumena
13 de abril, Ordenación Territorial y medioambiente

Apirilaren 18an, Garapen Ekonomikoa
18 de abril, Desarrollo económico

Apirilaren 20an, Zerbitzu eta Ekipamenduak
20 de abril, Servicios y equipamientos

Apirilaren 25ean, Herrigintza eta elkarbizitza
25 de abril, Pertenencia y convivencia

Apirilaren 27an, gaztelaniazko saioa
27 de abril, sesión en castellano

Ondoren, bigarren bateratze-bilera, maiatzaren 11n.
El 11 de mayo, segunda reunión conjunta

4. Saioaren balorazioa

Termometro batean saioaren balorazioa egiteko eskatu diegu, hainbat alderdi baloratuz:

Saioaren balorazioa (0-4 artean) Valoración de la reunión (entre 0-4)

